

Barrenetxea IV eta Matxin III finalean izango dira, Urriza eta Larrañagaren kontra

40-35 gailendu ziren herenegun, Juanenea eta Azpirozen aurka, Binakako Erremonte txapelketaren finalerdiko ligaxkan.

HERNANI ERREMONTA

Erremonteko Binakako Txapelketak dagoeneko badauzka finalistak. Urriza eta Larrañagari, Barrenetxea IV eta Matxin III batu baitzaizkie; haiek lortu zuten herenegun, finalerako bigarren txartela. Hilaren 28an jokatuko dute, datorren larunbatean, arratsaldeko 16:00etan

hasita, Hernaniko Galarretako frontoian.

Azken momentuan irabazitakoa

Hain zuzen, finalerdiko ligaxkako azkeneko partidua irabazita lortu zuten finalean egotea Barrenetxea IV hernaniarrak eta Matxin IIIak; 40-35 gailendu baitziren Juanenea eta Azpiro-

zen aurka.

Dena den, txartela ez zuten hasiera-hasieratik beraien eskutan izan. Are gehiago, azkeneko momentura arte, galtzeko arriskua izan zuten. Oso partidu orekatua izan zen, bi bikoteen artean, hunkigarria, baina distira falta izan zuen. Izan ere, nabaria zen bi bikoteek asko zutela jokoan.

Azkeneko zatia izan zen erabakigarria, Barrenetxea IVk eta Matxin IIIak finalerako txartela eskuratzeko. 34-35 gal-tzen zijoazenean, 6-0ko partzial

batekin, markagailuari buelta ematea lortu zuten, 40-35 geratu arte.

Barrenetxea, nabarmenena zenbakitan

Datuei erreparatu gero, Barrenetxea IV nabarmendu zen, baina alde haundiegirik gabe: denera 17 tanto egin zituen, eta 5 akats. Matxinek, aldiz, 11 tanto eta 5 akats.

Eta aurkariaren artean, aldiz, 16 tanto egin zituen Juanenea, eta 7 akats; eta 5 tanto Azpirozek, eta 9 akats. **K**



Jolasteko aukera, kiroldegian

HERNANI KIROLDEGIA

Gabonetako ludoteka jarriko dute gaur kiroldegian, jarduera fisikoa eta kirol sailak antolatuta. Goizeko 10:00etatik 13:00etara izango dute aukera gaztetxoek, bertan jolasteko.

Aurreratuta, Musika Eskolak

HERNANI MUSIKA ESKOLA

Olentzeroarekin abestera aterako dira gaur 'Hernani' Musika Eskola Publikoko ikasleak. Kaxkoan zehar ibiliko dira, eguerdiko 12:00etan hasita.

Karabelen, gutunak jasotzen

HERNANI BELKARA AUZO ELKARTEA

Aurreratuta iritsiko da Olentzero Karabel auzora. Belkara auzo elkarteak gonbidatuta, arratsaldeko 18:00etan iritsiko da Olentzero, etxeko txikienean gutunak jasotzera.

8328 errifak, saria

HERNANI SAN JOAN KONPARTSA

San Joan Konpartsak jakinarazi du 8389 zenbakidun errifa dela aurtengo sariduna.

Olentzeroak nonahi, bihar

HERNANI-ASTIGARRAGA GABONAK

Olentzero etxetara iritsi aurretik, hainbat txoko bisitatuko ditu, baita Urumea bailaran ere. Goizeko 11:30etan abiatuko da Astigarragako, Mari Domingirekin batera, Santio-menditik. Eta Hernanikoa, aldiz, arratsaldeko 18:00etatik aurrera ibiliko da Kaxkoan zehar, Ttarla dantza taldearen eskutik. Horrez gain, eguerdiko 12:00etan Kantuz abesbatzak alaituko ditu kaleak; eta gauza bera egingo du Hernaniko Musika Bandak, gauez, iluntzeko 20:00etatik aurrera.

Borja Manchado eta Lorea Aiala azkarrenak atzo, Inuxente Krosean

Euripean izan bazen ere, 105 heldu zein gaztetxok hartu zuten parte atzoko Inuxente Krosean. Herritarren artean, Antton Korta eta Leire Mendioroz izan ziren lehenengoak; eta haiek ere izan zuten saria.

ASTIGARRAGA MUNDARRO KIROEL ELKARTEA

Txantxa artean egin dute, beste behin, Astigarragako Inuxente Krosa Mundarro Kirol Elkarteak antolatuta, baina bihurrikeriak bakarrik ez ziren izan, lasterka ederki egiteko tartea ere izan zuten Astigarragara gerturatu zirenek.

Borja Manchado eta Lorea Aiala izan ziren 6 kilometroko ibilaldia osatzen azkarrenak, gizonezkoen eta emakumez-



Poz-positik bueltatu ziren korrikalari azkarrenak, haien sariekin.

koen artean, hurrenez hurren.

Gizonezkoen artean, bigarren izan zen Hodei Lujanbio goizuetarra eta hirugarren, Ivan Verdugo. Emakumezkoen artean, aldiz, Eneritz Arbelaitz geratu zen bigarren postuan, eta Leire Mendioroz astigartarra

iritsi zen jarraian.

Sari ederrak jaso zituzten haiek, eta sariak ere izan zituzten astigartar azkarrenak. Antton Korta eta Leire Mendiorozentzat izan ziren haiek; Kortak ezin izan zuen jaso, baina aurrerago jaso ahal izango du.

Aurretik, gaztetxoek

Helduek ez ezik, gaztetxoek ere hartu dute parte, denera, 105 parte-hartzaile izan dira, heldu eta gaztetxoaren artean. Txikienek norbere adinari egokitutako ibilaldiak egin zituzten, eta ondoren, merienda eman zieten. **K**

FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA

Asegururik ba al duzu?

Deitu Orbegozora

24 orduko tlfnoa.
943 33 10 20

www.funerariaorbegozo.com

Zentrala: Latsunbe 7, Hernani

HERNANI ANDOAIN ASTIGARRAGA URNIETA GOIZUETA

* Zerbitzu partikularrak eta aseguru txorakin
* Beilatokiak

* Erresketak
* Lekualdatzeak
* Eskelak, korroak...

ORBEGOZOZ
FUNERARIA
TANATORIO - BEILATOKIA

sulabe

Valella okindegia

Nagusia 27
Astigarraga
943 33 24 10

Allianz

ASEGURUAK

bizitza -
latripuak -
ibilgailuak -
etxeak -
komertzioak -
enpresak -
ardura zibila -
finantz aseguruak -
inbertsioak -

agustin ezponda irizar agentzia

Nagusia, 13
Telf.: 943 55 73 26
Faxa: 943 33 57 71

mikel armendariz

proiektu eta instalazio elektrikoak

Tel. 649 846 422
HERNANI

GAUR Eguraldia egonkortuz joango da, nahiz eta baliteke goizaldean euri pixka bat egitea oraindik. Gerora giroa lehortuz eta argituz joango da. Temperaturak behera egingo du. **Min.7° / Max.16°**

BIHAR Giro egonkor eta atsegina izango da. Lainoak nagusituko dira eta tarteka, eguzkia agertuko da. Hego haizea ibiliko da, eta tenperaturak epelduko ditu. **Min.12° / Max.18°**

DOBERA
EUSKARA
ELKARTEA

LAGUNTZAILEK

Hernaniko
Udala

Asagarragako
Udala

Errietzako
Auzo Udala

GOZUETAKO
UDALA

ARANOKO
UDALA

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korroa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** A. Etxebarria Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** Gaez: Aldabe Perkaitezgi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**

ERIKU
MAGAZTARITZA
GOBIERNO VASCO

Gipuzkoako
Foru Aldundia

DOBERA
BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

Begira Optikak aurten, herriko erakusleihorik politena

Hiru dendak jaso du bigarren saria, eta Laket dendak, aldiz, hirugarrena. Berriak antolatuta, bigarren edizioa izan dute aurtengoa.

HERNANI BERRIAK ELKARTEA

Gabonetako erakusleio lehiaketa antolatu du Berriak Hernaniko merkataria eta ostalarien elkarteak, bigarren urtez, eta dagoeneko eman dute irabazle berri.

Begira Optikak eskuratu du lehenengo saria; bigarren izan da Hiru haur arropa denda eta hirugarren, aldiz, Laket arropa denda. Aitorpen modura, pasa den ostiralean banatu zizkieten sariak.

Hiru kideko epaimahaia

Peio Gonzalez arte plastikoetan adituak, Maixa Ruiz Berriak el-



Erakusleio lehiaketako saridunak Berriak elkarteko kideekin batera.

Urtarrilaren 6ra arte ikusi ahal izango dira parte hartu duten erakusleioak.

karteko ordezkaria eta OnBit informatikako arduraduna eta Patxi Ibaruren Merkataritza eta Turismo saileko zinegotzia izan dira irabazleak hautatzeko ardura izan duten hiru epaimahaikideak. Herria zeharkatu

eta erakusleio onenak zeintzuk diren erabaki behar izan dute.

17 partaide, aurten

Erakusleio onenaren saria eskuratzeko lehian, 17 saltoki izan dira aurten parte hartu dutenak. Horiek guztiek apaindu dituzte beraien erakusleioak; «Gabonetako argiekin batera, Hernaniri merezi duen giroa ematea» izan dute helburu. Urtarrilaren 6ra bitarte ikusi ahal izango dira horiek guztiak. **K**



Arriatzu Barazkiakoko kideak jasotako sariekin.

Bi saridun, Santo Tomas egunean

HERNANI SANTO TOMAS EGUNA Donostiako Santo Tomas eguneko ferian izan ziren Arriatzu Barazkiak eta Iradi Sagarrak hernaniarrak, eta sariak ere eskuratu zituzten. Fruta lehia-

ketan lehenengo saria jaso zuten iraditarrek. Eta Arriatzuk, hiru: Postu onenari Jose Salaberria memoriale; Barazki lehiaketan 2garren saria; eta fruta lehiaketan, 3garrena.



Atzo egin zuten urte bukaerako luntxa Hernanin, bertako eta Gipuzkoako kideek.



Saridun guztiek elkarrekin egin zuten argazkia, bukaeran.

Opariz lepo, Goiz Eguzkitik ere

Urtero bezala, udazkeneko karta eta herri-jolasetako sariak banatu zituzten jubilatuen etxean; ondoren, txistor jana ederra egin zuten.

HERNANI GOIZ EGUZKI

Santo Tomas eguna ospatzearekin batera, udazkeneko karta eta herri-jolasetako sari-banaketa egin zuten Goiz Eguzkin. Denera, 28 sari banatu zituzten.

Kaleko jolasak, hasteko

Kaleko jolasetako sariak banatu zituzten, lehenengo. Emakumeen artean, Josefa Sanchez eta Pilar Garcia izan dira garaileak, eta bigarren geratu dira Tomasa

Escarmena eta Loren Oyarbide.

Gizonen artean, aldiz, Jose Lopez, Francisco Navas, Francisco Moya eta Jesus Brillo izan dira aurrenak; eta Primitivo Baz, Lucinio Moreno, Francisco Godinez eta David Inclan, bigarren.

Lau txapelketa, kartetan

Karta-jokoetan ibili direnek izan zituzten sariak baita ere.

Musean, Benjamin Miranda eta Teodoro Del Rio izan dira txapelak, eta Jose Villama-

rin eta Mere Puerta, azpitxapeldunak. Tutean, Vicente Perez eta Julian Santos gailendu dira, eta Lupe Primo eta Vicotoria Fernandez izan dira bigarren.

Eskoban, Lucas Yuste eta Ramon Ormaetxeak irabazi dute sari potoloena, eta Luis Lozano eta Primitivo Gonzalezek, bigarren. Eta punttoan, Manolo Morato eta Gerardo Barrosek irabazi zuten, eta Gabriel Asensio eta Sabino Mateos izan ziren, bigarren. **K**

Urte bukaerako luntxean, Andueza

HERNANI PSE-EE Urte bukaerako luntxa egin zuten atzo Hernaniko PSE-EEK, eta bertan izan zen Eneko Andueza Gipuzkoako PSE-EE-ren idazkari nagusia, Ricardo

Crespo zinegotziarekin eta Pablo Peñacoba Hernaniko sozialisten idazkari nagusia ere. Anduezak adierazi du espero duela «lehenbailehen» egitea akordio aurrerakoia.

Errugbi elkarteko denda, irekita

HERNANI ERRUGBI ELKARTEA

Azken urteetan bezala, Errugbi Elkarteak denda ireki du Plaza Berrin. Gabonetan irekiko dute arratsalde, 17:00etatik 20:00etara. Gaur eta bihar, goizez ere irekiko dute, 11:00etatik 13:00etara.

IRAGARKI MERKEAK

Martxan dagoen alimentazio denda salgai, jubilaiozagoatik, Hernaniko Etxeberri auzoan.

Deitu: 647 886 950

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**